

ETXEPARE INSTITUTUKO ZUZENDARIEN GASTUAK

100.000 euro inguru gastatu dituzte Etxepare Institutuko bi goi karguek 2014 eta 2015 artean kreditu txartel publikoa erabiliz eta atzerrira egindako bidaietan. Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa publikoen gastuak hizpide dira urtarriletik Legebiltzarrean eta kultur arloan Aizpea Goenaga buru duen erakundearen zenbakiek deitu dute arreta.



Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria

Soldataz aparte kreditu txartelarekin egindako gastuei bakarrik erreparatuta, Etxepare Institutuko zuzendari Aizpea Goenagak eta erakunde horretako Euskararen Sustapen eta Hedakuntzarako zuzendari Mari Jose Olaziregik 54.000 euro baino gehiago gastatu zituzten 2014 eta 2015 urteetan. Cristina Uriarte Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuak otsailean emandako datuak dira, Eusko Legebiltzarrean UPyDko Gorka Manero parlamentariak egindako galderei erantzunez. Kopuru horri Etxepareko bi kargu altuenek bidaietan gastatutako 40.000 euroak gehitu behar zaizkie.

2014ko urrian egin zituen gastu handienak Goenagak, 7.225,82 euro hilabete bakarrean. Eskainitako informazioetan ikusten denez, 2015ean bederatzi hilabeteetan gainditu zuen 1.000 euroko langa-uztailekoa da iazko kopuru handiena, 3.641,95 euro; bi urteetako kontuen baturak 35.882 euroko emaitza ematen du. Olaziregiren kasuan, hirutan gainditu zituen hiru zeroak 2014an eta bost aldiz iaz, guztira 18.000 eurotik gora bi urtean.



Aizpea Goenaga Etxepare Institutuko zuzendaria 2012ko argazki batean.

IREKIA.EUSKADI.EUS

EAEko zuzenbide pribatuko erakunde publikoek 2014-2015 artean plastikozko diruarekin egindako gastuen podiumetik gertu geratu da zenbaki horiekin Etxepare. Neiker-Tecnalia edo Sprilurren gainera dago eta Basquetour (108.670), Euskotren (102.077) eta SPRI (80.707) besterik ez ditu aurretik, otsailaren 25ean *El Correo* egunkariak argitaratu zuen taulako zenbakiak konparatuz gero.

54 bidaiak 18 hilabetean

Bidaietan gastatutakoari dagokionez, 18 hilabetean ordaindutako hegaldi, hotel, aseguru eta alokatutako autoak hartu dira kontuan. Urtarrilean eman zituzten horien inguruko argibideak Legebiltzarrean Maneroen beste eskaera bati erantzunez.

Orduan jakin zen Goenaga urte eta erdian 11 herrialdetan izan dela -AEB, Islandia edo Brasil daude bisitatutako lekuen artean-. 2014ko otsailean Goenagak eta Olaziregik zazpi bidaiak egin zituzten 28 egunetan. Urte bereko apirilean eta urrian ere zenbaki hori berdindu zuten.

» Hilabete bakarrean 7.000 euro baino gehiago gastatu zituen Goenagak Etxepareko txartelarekin

du zuten. Hilabete horretan egiten dituzten gastu handienak hain zuzen Etxepareren kreditu txartelak, Goenagaren 7.000 eurotik gorako fakturari Olaziregiren ia 3.000ko gehitu behar baitzaio.

2015eko lehen erdian apur bat gutxitu zen Etxepareko buruen bidaiak-eritua: lau aldiz irten ziren urtarrilean eta otsailean, sei aldiz martxoan, hirutan apirilean, seitan maiatzetan eta hiru bider ekainean. Iazko azken sei hilabeteetan hartutako hegaldien berririk ez dago Legebiltzarrean emandako informazioan, beraz bidaiak gastuak momentuz ezagutzen direnak baino handiagoak izan daitezke. ■